

Atal honetan, zure Fundazioak –ULMA osatzen dugun pertsonekin batera– egiten duen jardueraren berri emango dizugu, izan ere, horixe da gizartea eredu humanizatuago eta sostengarriago batera eramateko hartua dugun konpromisoa bideratzeko daukagun modua.



Etor Arregi



Gurasoentzako eskola



Haur tailerrak



Plastikoa murriztea



Mugikortasun jasangarria

#keinujasangarria

Jardueraz betetako  
beste urte bat; bilketa  
solidarioak, lana eta  
familia uztartzea,  
inklusio soziala eta  
jasangarritasuna izan dira  
2018. urte honetarako  
helburu batzuk

### Mundukideko kooperatzaile

ULMA Architectural Solutionseko bazkide den Etor Arregik bi urtean Brasilen Mundukideko kooperatzaile gisa jarduteko sinatu du. Brasilen urtebete egitear dagoela, harekin hitz egin dugu, eta zera helarazi digu: *“Kooperatibak indartzen ari garela sentitzen dut, eta hori oso atsegingarria da”*.

### Yoga saioak

ULMAN gure pertsonen ongizatea sustatzeko, yoga saioak Oñatin. 50 minutu lasai-lasai, astearte, asteazken eta ostegun eguerdian. Eta Legazpin, hipopresiboak eta Pilates.

Urtarriletik aurrera talde berriak. Animatu!

### Haur tailerrak

Aurten, urtarrilean eta ekainean izan dira, lan bizitza eta familia bateragarri egiten laguntzeko. 4 urtetik 10era bitarteko ia 200 haur ederto ibili dira ULMAN, gurasoak lanean zeuden bitartean.

### Plastikoa murriztea

Kafe orduan plastikoaren kontsumoa murrizteko, kooperatiba guztietan kristalezko

kikarak banatu ditugu. Hala, egunean 1.000 plastikozko ontzi aurrezten gabiltza ULMAN.

### Mugikortasun jasangarria

Lanerako desplazamendu jasangarriek saria daukate. Oinez, bizikletaz, patinatuz, autoa partekatuz, garraio publikoz (LanBus), eta orain, baita patinete elektriko ere.

Urtarriletik aurrera, programa Espainiako lurralde osora zabalduko dugu: kilometro jasangarri bakoitzeko, puntuak lortuko dituzu, eta puntu horien truk opariak eskuratuko. Informazio guztia webgune honetan:

[www.ekokilometro.ulma.com](http://www.ekokilometro.ulma.com)

### Gurasoentzako eskola

Haurren portaera, bizitzaren lehen etapetako heltze prozesuak eta guraso gisa betetzen dugun rola hobeto ulertzeko.

Lehen topaketa urrian izan zen, eta “Mainak, kasketaldiak eta mugak” gaia landu zen. Bigarrena azaroan izan zen, non “Haur autoestimua landuz” gaia landu genuen, Rafael Cristobal doktorea hizlari zela. Haurtzaindegi zerbitzua egon zen, bertaratzea samurtzeko.

### Laneratzea

Oñatiko Udalak, Bidebarrik eta ULMAK “Laneratz” lankidetzaren hitzarmena izenpetu dute, gizarrean baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonak gure ingurunean enpresetan lanean hastea sustatzeko.

Bestalde, lanean gabiltza desgaitasunen bat daukaten pertsonak gure kooperatibetan lanean has daitezten. Horretarako, Gureak eta Katealegia enpresa adituen laguntza daukagu Gipuzkoan, gure kooperatiba guztien ezinbesteko lankidetzaren eta inplikazioarekin.

Helburua da aipatutako kolektiboetako pertsonen lan bat eskuratzea eta hori baliagarria izatea pertsona gisa garatuz joateko eta gizarrean erabat txertatzeko.

### Kirol eta heziketa eskola

Oñatiko hiru ikastetxeek, Aloña Mendi kirol klubaren lankidetzarekin, bat egin dute heziketa eredu integral eta kalitatezko bat sustatzeko, kirol aniztasunaren eta errespetua, talde lana eta halako balioen alde egiteaz gainera, Oñatiko 4 urtetik 15era bitarteko haur eta gazteen artean bizi ohitura osasungarriak bultzatzeko. ULMA Taldeak bazkide babesle gisa bat egin du heziketa proiektu interesgarri honekin.

### Elkartasuna Hondurasekin

Apirilean, ULMA Taldeko ehunka pertsonak parte hartu zuten gaztelaniaz idatzitako liburu eta ipuinen bilketa solidarioan, gero liburu eta ipuin horiek Hondurasera bidaltzeko. Acoes Honduras GKEa arduratu

zen bildutako elkartasun tonak bidaltzeaz. Liburu eta ipuin horiek guztiak Hondurasko ikastetxeetan daude dagoeneko, eta irakurketa ohiturak sustatzeko eta kultura hedatzeko balio izango dute. Eskerrik asko zuen laguntzagatik!

### Gainera...

.ULMA Taldeak Mundukideren aldeko lasterketa solidarioan parte hartu du

.ULMA Taldea, First Lego League-n babesle

.La Caixaren prestakuntza ikastaroak

Bidebarrira zuzenduta

### Eta abenduaren 14ra arte, “Jostailu bilketa”...

Oraindik ere garaiz zabilta jostailu berrien bilketan laguntzeko, Gurutze Gorriak Oñatzerori eman diezazkion. Hala, gure inguruko haur behartsuek Oñatzeroren bisitaldia izango dute eta euren jostailuak jasoko dituzte, gure elkartasunari esker.

